

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko uztailaren 10etik 16rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/07/15

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** - Esku hartze sozialari buruzko Gipuzkoako III. hitzarmen kolektiboa (2019-2022). [4799 xedapena - 37 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/07/10

- **Urrutiko lana.** - 10/2021 Legea, uztailaren 9koa, urrutiko lanari buruzkoa. [11472 xedapena - 44 or.](#)
- **Iruzur fiskala.** - 11/2021 Legea, uztailaren 9koa, iruzur fiskala prebenitzeko eta horren aurka egiteko neurriei buruzkoa, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena (barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina duen saiheste fiskalaren aurkako arauak ezartzen ditu), zenbait zerga-arau aldatzeari dagokionez eta jokoa arautzearen alorrean. [11473 xedapena - 93 or.](#)

2021/10/12

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA.** - **Antolaketa.** - 507/2021 Errege Dekretua, uztailaren 10ekoa, Ministerio Departamentuak berregituratzen dituen urtarilaren 12ko 2/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. [11510 xedapena - 3 or.](#)
- 508/2021 Errege Dekretua, uztailaren 10ekoa, Gobernuko Presidenteordetzei buruzkoa. [11511 xedapena - 2 or.](#)
- **ESPAINIAKO BANKUA.** - **Hipoteka maileguak. Indizeak.** - Ebazpena, 2021eko uztailaren 1ekoa, Espainiako Bankuarena, zeinaren bidez argitaratzen diren hipoteka maileguen interes tipoaren arriskuagatiko kalte-ordaineen merkatu balioa kalkulatzeko aplikatu beharreko erreferentziako indize eta tipoak, bai eta aurrez kitatzen diren mailegu edo kredituen merkatu balioa lortzeko aplikatu beharreko diferentzialaren kalkulurako aplikatu beharrekoak ere. [11610 xedapena - 1 or.](#)

2021/07/13

- **OSASUN MINISTERIOA.** - **Mugak. Osasun kontrola.** - Ebazpena, 2021eko uztailaren 9koa, Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, Espainiako sarrera-puntuetan egin beharreko osasun kontrolei buruzko 2021eko ekainaren 4koa aldatzen duena. [11615 xedapena - 2 or.](#)

2021/07/14

- **Zerbitzu publikoak. Sarbide elektronikoa.** - Ebazpena, 2021eko uztailaren 12koa, Zerga Administrazioiko Espainiako Agentziako Presidentetzarena, zeinaren bidez

aldatzen den Zerga Administrazioako Espainiako Agentziaren egoitza elektronikoa sortzen duen eta erregistro elektronikoak arautzen dituen 2009ko abenduaren 28koa. [11681 xedapena - 4 or.](#)

2021/07/15

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. - Osasuna. COVID-19a.** - 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa. [11766 xedapena - 36 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/07/12

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - AGINDUA, 2021eko ekainaren 28koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, 2021eko maiatzaren 25eko Aginduaren zati bat ondoriorik gabe uzten duena. Izan ere, agindu horren bidez, harremanak bitarteko telematikoen bidez ezartzeko betebeharra ezartzen zaie jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisiko eta juridikoei Eusko Jaurlaritzako Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzaren mendeko organismoekiko harremanetan, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren zenbait alderdi kontuan hartuta. [3943 xedapena - 2 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/07/14

- **Batzar Nagusiak. - MOZIOAK.** - 61/2021 Mozioa, uztailaren 1ekoa, TUBACEX enpresaren egoerari buruz. [2505 xedapena - 1 or.](#)
- **Arabako Foru Aldundia. - ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2021 zerga premiazko araugintzako dekretua, uztailaren 6koa. Zerga neurriak onestea energia fiskalitatearen arloan. [2509 xedapena - 3 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/07/14

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1227/2021 FORU AGINDUA, uztailaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen baita Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren urriaren 5eko 1740/2017 Foru Agindua (haren bidez, bi eredu hauek onetsi dira: 036 eredua, enpresaburuek, profesionalek eta atxikitzaileek zentsuko alta-, baja- eta aldaketa-aitorpenetarako aurkeztu beharrekoa; eta 037 eredua, enpresaburuek eta profesionalek (pertsona fisikoek) zentsuko aldaketa-aitorpenerako aurkeztu beharrekoa. [1-593 xedapena - 24 or.](#)
- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1228/2021 FORU AGINDUA, uztailaren 7koa. Horren bidez, onesten da 035 eredua (eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen

urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikatu beharreko araubide berezietan) eta zehazten dira aurkezteko modua eta prozedura. [I-594 xedapena - 15 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/07/14

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 9/2021 Foru Dekretua, uztailaren 13koa, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzekoa. [4877 xedapena - 5 or.](#)

2021/07/15

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 410/2021 Foru Agindua, uztailaren 14koa, zeinak aldatzen baitu abenduaren 23ko 679/2014 Foru Agindua, enpresariak, profesionalak eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortzenaren 036 ereduaren onartu eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartel ereduaren ezartzen duena. [4498 xedapena - 34 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 411/2021 Foru Agindua, uztailaren 14koa, zeinaren bidez onesten baita 035 ereduaren eta haren aurkezpen modua eta prozedura zehazten baitira. [4896 xedapena - 24 or.](#)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/07/12

- **BARNE- ETA PROZEDURA-ARAUDIAK.** EEGKren 160/21 A Erabakia, zeinaren bidez barne-arauak ezartzen diren, datu pertsonalen tratamenduekin lotuta, titularren zenbait eskubideren mugei buruz, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak egiten dituen jardueren testuinguruan. [L-246/8 xedapena - 7 or.](#)

2021/07/13

- **ERREGELAMENDUAK.** - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1139 (EB) Erregelamendua, 2021eko uztailaren 7koa, Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsekin ezartzen duena, eta 2017/1004 (EB) Erregelamendua aldatzen duena. [L 247/1 xedapena - 49 or.](#)
- Kontseiluaren 2021/1142 (EB) Erabakia, 2021eko uztailaren 12koa, berriz ere luzatzen duena 2020/430 (EB) Erabakiaren bidez ezarritako Kontseiluaren Barne Araudiaren aldi baterako salbuespena, COVID-19aren pandemiaren ondorioz Batasunean bidaiatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta. [L 247/91 xedapena - 2 or.](#)

2021/07/15

- **ZUZENTARAUAK.** - Kontseiluaren 2021/1159 (EB) Zuzentaraua, 2021eko uztailaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen den 2006/112/EE Zuzentaraua, inportazioei eta zenbait hornikuntzari lotutako aldi baterako salbuespenei dagokienez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko. [L 250/1 xedapena - 3 or.](#)

2021/07/16

- **GOMENDIOAK** - Kontseiluaren 2021/1170 (EB) Gomendioa, 2021eko uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez aldatzen den funtsezkoak ez diren EBrako bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzko Kontseiluaren 2020/912 (EB) Gomendioa. L 255/3 xedapena - 4 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO